2018ko apirila | 180. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria

Txomin Ibarra Azkorra

Olako bildumagilea

MarenBidaurrazagaDerioetaZamudiokoJaiakTxorierririBira

EUSKAL ASTEA 2018

ZAMUDION EUSKERAZ? HOBA EZ!

apirilak 29, domeka
19:00: ZINEA, **HANDIA,**
Dorretxean

maiatzak 1, martitzena
17:00 ETA 19:00: Golazen *Denok antzerkira!*
Baserri Antzokian

maiatzak 4, barikua
18:00: PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS,
"BOROBILEAN" Kiroldegian

maiatzak 5, zapatua
10:00: IBILALDI DIDAKTIKOA UMEENTZAT
ZAMUDIO ZURE HERRIA EZAGUTU
12:00: PILOTA partiduak
VI. ZAMUDIOKO TXAPELKETA
ARBOLANTXA pilota eskolaren eskutik,
19:00: KANTALDIA,
EÑAUT ELORRIETA, Dorretxean

LAGATZU
ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA
ANTOLATZAILEA

Zamudio Udala
BABESLEA ETA LAGUNTZAILEA

4 Eritxiak
5 Laburrak eta albisteak
11 Irudietan...
12 Emakume Master Cup
14 Gaztea eta... Maren Bidaurrauzaga, aktorea
16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
18 Gai nagusia... Txomin Ibarra
22 Derioko San Isidro jaiak
27 Zorribike Gela pedagogikoa BBT Taldea
28 Zamudioko Pazko jaiak
32 Berbalagun
34 Teknologia... Internet Health Report
35 Aikorrizketa... Kontu kontari, kanta kantari
36 Sukaldaritza
37 Denborapasa
38 Agenda

22 Derioko San Isidro jaiak

28 Zamudioko Pazko jaiak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

2015 Ikain

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Einer Larrabeiti, Itziar Larrazabal, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Xabier Díaz, Itallen bertso eskola, Ibon Maruregi , Gaizka Peñafiel ,Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Aner Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza eta Garazi Albizua

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

Gizatasuna, hor al zaude?

EINER LARRABEITI
Psikologian graduatua

Txorierriko plazetan egunkari-saltzaileak ahots betean ari dira azken berriak zabaltzen. *"Estra, estra!"*. Bizimodu modernoaren eraginez, presaka ibiltzea omen da askoren eguneroko ogia, eta gazte hauek kontratatu dituzte, herritarrek behintzat berri garrantzitsuen tituluak entzuteko aukera izan dezaten.

"Estra, estra! Euskara ez dago debekatuta! Tabernetan, dendetan edota kalean galdera eta erantzuna euskaraz osatzea zilegi da!"

"Estra, estra! Feminismoa da eskubide berdinak ditugun gizaki parekideak garela diona! Tratu onak sustatzen dituen korrontea da!"

Benetako berriak balira, beren logikotasunak lotsa eragingo luke askoren barrenean. Hala ere, egunerokotasunak dioskuna da zentzuzko mezuak zabaltzen jarraitzeko beharrizan ikaragarria dagoela. Hala, egunkaria zabaldu eta honako datuekin egin dugu topo: "Eskolan euskarak arau bezala jarraitzen du bere erabilera sustatu dadin; bitartean, gaztetxoentzat espainieraz mintzatzea guayagoa da". "Etxeko alaba gaztea mutiko batekin hasi da eta jatorra dirudi. Mutilari "zainduiguzu!"-esan diote neskaren gurasoek, neskak bere burua zaintzen jakingo ez balu bezala; alabari, aldiz, "zelango zortea daukazun, e?"-alderantziz ere hala ez den galdetu nahi luke neskak". Bizitzak aurrera darrai baina zuri-beltzean egoten jarraitzen dugu gai batzuetan. Halaber, gazte horiek nagusitu egingo dira, beren sinesmen eta jarrera inkontzienteekin batera.

Horren harira, geure buruari galdegin diezaiokegu non galdu ote dugun euskal identitatearekiko miresmena, nola hasi garen desilusioak bultzatuta hezten. Zergatik ez diegun gure gaztetxoei generorolen filtrorik gabe izaten irakasten, eta zer dela eta jartzen ditugun trabak guk irentsitako balio matxista eta paternalistei autokritika egiterakoan.

Banatzen ibili diren egunkarietako azalean Euskara eta Emakumea ageri dira, biak banku berean eserita. Argazkitik at, elkar ikusi bezain laster malkoz bete zaizkie begiak; ez dituzte eten, barre egitea eteten ez dugun bezalaxe. Bata bestearen istorioa eta historia ezagutzen dute, zapalduak izan dira, eta badira oraindino ere, indarkeriaz, justifikazioz eta isilunez beteriko momentu guztietan. Direnagatik barkamena eskatu behar izan duten bakoitzean.

Zer dago soldata arrakalaren atzean?

ITZIAR LARRAZABAL
ELAren eskualdeko arduraduna

Alde batetik, bizitzaren iraupenerako ezinbestekoak diren zaintza lanak batez ere emakumezkoek egiten dituzte, eta lan horiei ez zaie inolako balio sozial eta ekonomikorik aitortzen. Bestetik, emakumekoen enpleguei balio gutxiago ematen zaie eta gutxiago ordaintzen dira.

Soldata sistemak ere desberdintasun egoera honetan oinarritzen dira sarritan. Gizonezkoei lotutako ahalmenak ordaintzen dituzten kategoriak edo plusak altuagoak izan ohi dira emakumekoenak baino. Kategoria edo organigramaren posturik gorenetan gizonezkoak dira nagusi enpresa gehienetan, bai esparru pribatuan, baita publikoan ere.

Emakumekoak dira nagusiki semealaben edo mendekotasuna duten beste senideen zaintzaz arduratzen direnak. Kontratu partzialak dituzten langile gehienak ere emakumekoak dira, kontratu hauek enplegua eta etxeko eta zaintza lanak uztargarri egiteko tresna gisa erabili ohi direlako. Emakumeko gehienentzat kontratu partzialak ez dira borondatezko aukera izaten. Egin diren lan erreformek, gainera, okertu egin dituzte langile guztien lan baldintzak, bereziki emakumekoenak.

Malen Amenabar, irabazle Derion

Apirilaren 15ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Fasearen bigarren saioa jokatu zen Derioko Gurea Aretoan, eta hori Malen Amenabar Larrañagak irabazi zuen. Larrabetzuarrak 167,5 puntu lortu zituen guztira.

Berarekin batera hauek aritu ziren bat-batean: Aissa Intxausti Aburruza (Lekeitio), Enare Muniategi Etxabe (Gautegiz-Arteaga), Iñigo Kortazar Elias (Algorta), Koldo Gezuraga Seijido (Gernika-Lumo) eta Mikel Retolaza Etxebarria (Busturia). Gurea Aretoa bete-bete egin zen Udabarriko Fasearen bigarren saioan. Gai emaile Xabier Sainz de la Maza Bilbao aritu zen, eta epaimahaia hauek osatu zuten: Joseba Santxo Uriartek, Mirari Azula Aurrekoetxeak eta Miriam Juaristi Urizarrek. Idazkari beharretan Itziar Basterretxea Olarreaga ibili zen.

Okerrak zuzenduz

Aurreko alean, bosgarren orrialdean, argitaratu genuen Derion 7,5 euroko aurrekontuak onartu zituztela. Konturatuko zinetenez, akatsa egin genuen, 2018. urteko aurrekontuak 7,5 milioi eurokoak direlako. Hurrengo orrialdean, seigarren orrialdean, esan genuen Gaizka Peñafiel lezamarrak Josu Bergararen azken lanean kolaboratu zuela. Horretan ere akatsa egin genuen, Josu Bergara Aretxabaletakoa zela ipini genuelako. Josu Bergara Eakoa da.

Azkenik, 33. orrialdean, argazki batzuk argitaratu genituen otsaileko elurtearen haritik. Lehenengo argazkia Zamudiokoa zela ipini genuen, baina ez zen zuzena. Argazki hori Andoni Aretxabaletak atera zuen Lezaman.

Argazki rallya, Derion

Derioko Argazki Taldea (DAT)

Maiatzaren 26an izango da, 10:00etatik 13:30era, eta Derioko Argazki Taldeak (DAT) antolatu du 14. aldiz. Parte-hartzaileak Kultur Birikatik aterako dira.

Rallyan izena ematea doakoa da eta nahi duenak hartu ahalko du parte. Antolatzaileek bost gai emango dizkiete argazkilariei eta gai bakoitzeko argazki bat aurkeztu beharko dute. Argazkiak Derion egin beharko dira. Guztira, hiru sari emango dira: 200, 125 eta 75 euro.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

BI-3102 errepideko kalteak konpontzeko obrak, larrialdi-prozeduraren bidez

Otsailaren 13an, Larrabetzun gertatutako lur-jausiak kalteak sortu zituen BI-3102 foru errepidean. Bizkaiko Foru Aldundiak onetsi du kalte horiek konpontzeko lanak larrialdi-prozeduraren bidez kontratatzea. Konpontze-lanetan 400.000 euro inguru ipiniko dira eta aurreikusi da bost hilabete iraungo dutela.

Euri handiak lur-jausia eragin zuen, 25.000 metro karratu inguru, hain zuzen ere. Errepidea trafikorako itxi egin zen eta mendi-hegala egonkor ez zegoela, lanei ekin zieten. Besteak beste, euri urak bideratu ziren, lur-jausiak mugitutako materialak kendu ziren, eta hasi zen BI-302 errepidearen plataforma lehengoratzeko eta trafikorako zabaltzeko lanak egiten.

"Gure Eguna" jaia antolatu da Loiun

Ekitaldia Loiuko Bakarrak gazte elkarteak antolatu du maiatzaren 5erako. Goizean hainbat ekintza egongo dira, hala nola umeentzako tailerrak, zumba, trikipoteoa eta herri bazkaria. Taberna Ibiltaria 18:00etatik aurrera arituko da, eta 23:00etan hasiera emango zaie kontzertuei. Oholtza gainean hauek arituko dira: La Basu, Bad Sound System eta Dj Munza.

Pentsio duinen alde

Euskal Herriko pentsiodunak eta alargunak urtarriletik hona dabiltza elkarretaratzen eta manifestatzen, pentsioen % 0,25eko igoeraren aurka protestatzeko. Elkarretaratzeak udalerrietako udaletxe aurrean egiten dituzte astelehenero; Txorierrin ere bai. Pentsiodunek eskatzen dute gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea, igoera kontsumoko prezioen indizera (KPI) lotzea eta iraunkortasun faktorea baliogabetzea. "Izan ere azken urte bietan erosteko ahalmenaren % 3 galdu dugu", esan digu Jose Luis Padura zamudioztarrak.

Bitartean, Rajoyren gobernuak Estatuko Aurrekontu Orokorreko proiektua aurkeztu du apirilaren hasieran. Aurrekontu horiek onartuz gero, pentsiodunen eta alargunen pentsioek % 1 eta % 3 bitarteko igoera edukiko lukete. Aurkeztutakoak ez ditu pentsiodunen eskariak asetzen. "Apurrak dira. Montorok lotsagabekeriaz esan zuen moduan, azenarioak dira krisi garaian". Pentsiodunen helburua da gutxieneko pentsioak igotzea eta pentsio guztien igoera KPIrekin parekatzea, eta horrela alargunak eta pentsiodunak pobretzea ekiditea. "Dirurik ez dagoela diote, baina haiek badute nahi dutenerako; beren soldatak igotzeko, esate baterako. Estatuan bederatzi milioi pentsiodun gabiltza kalera ateratzen; kontuan hartu beharko dute".

Pentsio duinen aldeko borroka pentsiodunei ez ezik kontu hau gizarte osoari ere badagokio, pentsiodunen iritziz.

Edan eta abesteko garagardoa

Taberna Ibiltariak eta Basqueryk "Taberna Ibiltaria" garagardoa merkaturatu dute. Hori garagardo artisaua da, *brown ale* bat, zapore handia duena baina edaten erraza dena, eta bere salmentaren bidez lortzen den dirua euskal kultura eta abestiak, eta euskara sustatzen duten erakundeei laguntzera zuzenduko da.

"Ideia Aitor Elizegirena izan zen", azaldu digute Taberna Ibiltaritik. "Horrek garagardo fabrika ipini zuen bere establezimenduetan garagardo artisau ona eskaintzeko eta, euskal kulturarako grina beti eduki duenez, komentatu zigun ekoizpen handiagoa egin zitekeela, eta zati horri esker lortzen zen dirua euskal kultura sustatzen laguntzeko erabili. Ideia polita iruditu zitzaigun, modu erraza zelako euskal kulturarako diru apur bat ateratzeko".

Guztira 1.500 botila atera dira eta botila bakoitzetik euro bat zuzenduko da euskal kultura sustatzera. Beharrezkoa izanez gero, botila gehiago kaleratuko dira. Garagardoa Taberna Ibiltariari eskatu behar zaio eta eurek ere hartuko dute tabernetan-eta banatzeko ardura. Botilaren etiketan QR kode bat dago eta hori eskaneatuta, egitasmoaren azalpena azaltzen da eskuko telefonoan, baita euskal abestien hizkia ere.

Iaz, sustatzaileek saiakera egin zuten eta 800 litro garagardo merkaturatu zituzten. Irabazia, 800 euro, AIKOR! aldizkariari eman ziguten.

Lezamako Udalak helegitea ipini du JANren epaiaren aurka

a: Gaizka Peñafiel

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin zuen Lezamako Udalak 2015ean onartu zuen Hirigintza Plan Orokorra (HAPO), eta Udalak horren kontrako helegitea aurkeztu du. AIKOR! aldizkaria harremanetan ipini da Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatearekin, erabakiaren arrazoia ezagutzeko, baina apirileko alea itxi orduko Udaletik ez dute adierazpenik egin.

Bestetik, Lezama Bizirik elkartetik esan digute espero zutela Udalak erabaki hori hartzea, eta herriarentzat oso albiste txarra dela, HAPO barik jarraituko dutelako. Elkartearen ustez, Udalak helegitea aurkeztu izanak adierazten du EAJren jarrera ez dela azken urteotan aldatu. Gainera, gogoratu dute helegitea onartzen bada, prozesua oraindik urte batzuk luzatuko dela. Hala ere, bitartean, premiazko egitasmorik balego, prest azaldu dira egitasmo horiek aztertzeko, era adostu batean burutzeko borondatea badago.

LIBURUAREN EGUNA.- Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da eta, aurreko urteetan moduan, ekitaldiak izan dira gure herrietan. Larrabetzun, esate baterako, eta Kulturbilguneak antolatuta, Danele Sarriugarteren *Azala erre* liburua eduki zuten hizpide "Literaturaz berbetan" egitasmoaren barruan, eta eskolako seigarren mailako umeek eta herritarrek irakurraldiak egin zituzten Hori Bai gaztetxean. Bigarren eskuko azoka ere egon zen. Argazkia Idoia Andresena da.

Bizkaiko jaien bilatzailea

Bilatzailea Patxi Koop-k ipini du sarean, www.patxikoop.eus/jaiak webgunean hain zuzen ere, eta erabiltzaileei zerbitzua ematea du helburu, jaiak, musika jaialdiak edo bestelako ospakizunak bila ditzaten. Martxoaren hasieran ipini zen abian eta dagoeneko 60 ekitaldi baino gehiago jaso dira bertan. Era berean, plataforma bat eskaintzen diete herri elkarteei, euren ospakizunen berri eman dezaten. Bestetik jaiek lanpostu asko sortzen dutela azpimarratu dute sustatzaileek. "Modu zuzenean edo zeharkakoan, eta gure asmoa jaietatik bizi diren enpresei eta langile autonomoei tresna erabilgarri bat eskaintzea ere bada".

Bizkaiko jaien bilatzailea oso erraza da erabiltzen. Hasieran aipatutako webgunean egutegi bat dago eta bertan ikus daiteke zein herritan dauden jaietan. Jai bakoitzak menu zabalgarria dauka eta jai-egitaraua edo kartela argitaratu badira, horiek ere ikus daitezke bertan. Horrez gainera, leku edo egun zehatz batean zer dagoen jakin nahi bada, bilatzailea horretarako ere erabil daiteke, eta edukia ordenagailuan, tabletean edo eskuko telefonoan deskargatu.

Patxi Koop enpresak zerbitzua ematen die Bizkaiko txosnen % 80ri. "Txosnak hornitzen adituak garenez, badakigu jaiek zenbat jende mugitzen duten, eta zer den ospakizun handi bat martxan jartzea".

Udaberria gozo dator Derion

Danerik Paraje! Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarte Profesionalak kanpainak ipini ditu abian, bezeroak saritzeko eta salmentak sustatzeko.

Kanpainei martxoan ekin zieten. Holan, beren erosketak ordaintzeko, elkartearen txartela erabiltzen duten bezeroei 5, 10 eta 20 euroko txartelak atera ahal zaizkie. Sustapenak maiatzera arte iraungo du eta diru-txartelak elkartearen barruan dauden dendetan eta zerbitzuetan erabili beharko dira. Txartelak abantaila handiak ekartzen dizkio erosleari, hala nola opariengatik trukatu ahal diren puntuak, iraileko eta urriko kanpainaren zorizko deskontuak eta gaur egun indarrean dagoen kanpainaren diru-txartelak.

Txartela doakoa da eta elkartearen barruan dauden dendetan eta establezimenduetan eskatu daiteke. Baita Rural kutxan ere. Erosleak txartel hori erabilita ordaindu ditzake erosketak, bere ohiko banketxea beste bat bada ere. "Tartean Aste Santua egon den arren, esan dezakegu kanpaina ondo funtzionatzen dabilela", adierazi digute Danerik Paraje! elkartetik. "Honelako ekintzek bezeroak animatzen dituzte eta gehiago erosten dute. Mugimendu handiagoa dago".

Bestetik, elkarteak beste kanpaina bat ipiniko du martxan maiatzean; kanpaina gozo bat, alegia. "Karameluak banatuko ditugu elkartearen barruan dauden denda eta establezimendu guztietan. Karameluak organza oihalezko poltsa barruan banatuko ditugu. Poltsa horiek nahi dena gordetzeko erabili ahalko dira gero". Guztira 2.500 karamelu poltsa banatuko dituzte bezeroen artean.

Balio erantsia

Danerik Paraje! elkartetik adierazi diguten moduan, krisiaren eragina nabaria izan da herrian; hala eta guztiz ere, aurretik aipatutako kanpainak lagungarriak dira egoera txarra arintzeko eta erosketak sustatzeko. Era berean, esan digute negozio batzuk itxi badira ere, beste batzuk zabaldu egin direla eta horrek egoera orekatu egin duela.

Herriko 60 establezimendu baino gehiago daude Danerik Paraje! elkartearen barruan. Horiek esparru zabala hartzen dute: osasuna, elikadura, arropa, aholkularitza eta aseguruak, arlo banaka batzuk aipatzearren. Gainera, kalitatea eta tratu hurbila eta pertsonalizatua eskaintzen dizkiote bezeroari.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

M6rako bidean

Herri galdeketa egingo da Zamudion eta Lezaman maiatzaren 6an. Izartu Zamudio eta Izartu Lezama elkarteak botazioaren azken prestaketekin dabiltza, eta jendaurrean aurkeztu dute, besteak beste, zenbat sinadura bildu duten eta herri bakoitzean egingo den galdera.

Herri galdeketa antolatu ahal izateko, antolatzaileek botoa eman ahal dutenen % 10en sinadura batu behar zuten, eta jakinarazi duten moduan, portzentaje hori gainditu egin dute. Izan ere, Zamudion 427 sinadura batu dituzte, eta Lezaman, 330. Bestetik, maiatzaren 6an egingo den galdera herritarrekin batera adostu da prozesu parte hartzaile baten bidez. Zamudion galdera hau egingo da: Euskal herritarra izanik, geure etorkizuna libre erabakitzeko eskubidearen alde zagoz? Eta Lezaman beste hau: Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan gura dozu?

Galdeketa 09:00etatik 20:00etara izango da Zamudioko Leizaola lehendakaria, 7 kalean; eta Lezamako Herriko Plazan ipiniko den karpa batean. Botoa maiatzaren 6an 16 urte beteta izan eta herrian erroldatuta dauden herritarrek eman ahalko dute. Horretarako, NANa edo, atzerritarren kasuan, Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ) aurkeztu beharko da. Agiriak originalak izan behar dira eta indarrean egon behar dira. Era berean, gidatzeko baimena, pasaportea edo EHNA aurkeztu ahal izango dira, baina kasu horietan errolda ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Gainera, NANean edo AIZn agertzen den bizilekua Lezama edo Zamudio ez bada, edo agiria iraungita badago, errolda ziurtagiria eraman beharko da. Elkarteetatik adierazitakoaren arabera, botoa aldez aurretik emateko aukera ere egongo da. Zamudion, Leizaola lehendakaria kaleko lokalean eman ahal izango da apirilaren 29an eta maiatzaren 1ean, 12:00etatik 14:00etara; maiatzaren 4an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era; eta maiatzaren 5ean, 12:00etatik 14:00etara. Lezamarrek Aretxalde 68 kaleko lokalean eman ahalko dute aurretiko botoa, maiatzaren 3an eta 4an, 18:30etik 20:30era; eta maiatzaren 5ean, 12:30etik 14:30era.

Berme guztiak

Bai maiatzaren 6an, bai boto aurreratuen kasuan, galdeketa berme guztiekin eta Gure Esku Dagok ezarritako protokoloaren arabera egingo dela garantizatuko da. Horretarako, Batzorde Sustatzaileaz gainera, Kontrol edo Berme Batzordea eta Jarraipen Batzordea eratu dira. Kontrol Batzordeak Zuzenbidean lau lizentziadunek eta Gizartean gradudun batek osatzen dute, eta euren eginkizuna hauxe da: prozesuaren gardentasuna, neutraltasuna eta objetibotasuna zaintzea, eta galdeketa deialdiaren eta protokoloaren arabera egingo dela bermatzea. Bestalde, Jarraipen Batzordearen eginkizun nagusia izango da galdeketa prozesu osoa ikuskatzea, eta Kontrol Batzordearekin batera protokoloak ezartzen duena betetzen dela bermatzen laguntzea.

Izartu Zamudiotik eta Izartu Lezamatik azaldu duten moduan, batutako sinadurak Kontrol Batzordeak zaindu ditu, eta maiatzaren 6an baino lehen emango diren botoak ere batzorde horren ardurapean egongo dira. Halaber, eta esandakoaren arabera, prozesuan erabili diren –eta erabiliko diren– datu pertsonal guztiak, sinadurak barne, Datuak Babesteko Legeak ezarritakoaren arabera tratatuko dira, eta enpresa homologatu batera eramango dira ezdeustu ditzan.

Maiatzaren 6aren aurreko egunetan ekitaldiak dabiltza antolatzen Zamudion eta Lezaman, hala nola herri bazkariak, erromeriak eta Sukal-klik jaia. Herri bietan adierazpen instituzionala onartu da udalbatzan, eta gaur egungo eta lehengo udal ordezkariek ere euren babesa adierazi diote galdeketari. Galdeketaren egunerako ekintzak antolatuko dira.

Nora Llona Coloma | Jarrera txarren amesgaiztoa

Fisioterapia ikasketak bukatu eta Frantzian lan egiten aritu ondoren, Norak 2006an ireki zuen kontsulta Sondikan. Bertara, txorierritarrez gain, Bermeo, Gernika, Leioa, Bilbo eta Bizkaiko beste hainbat herritako pazienteak etortzen zaizkio. Bere lanetik gehien gustatzen zaiona pazienteei laguntzea da. Profesionalaren esanetan, fisioterapeutak noizbehinka bisitatu beharrekoak dira, etorkizunean gertatu daitezkeen arazoak ekidin ditzaketelako.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikuria.com

Tortikolisak hartu bazaitu kontuan, lunbagoagaz ari bazara tratuan… Nora Llonak laguntzen dautsu momentuan hazur guztiak jartzen behar dan lekuan.

Itallen Bertso Eskola

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

ARRIZABALAGA eta ETXANIZ | pelotariak

"Erakutsi dogu frontoi bat beteteko gauza garela"

Olatz Arrizabalagak (Gernika) eta Leire Etxanizek (Etxebarria) Laboral Kutxa Emakume Master Cup binakako pelota txapelketea irabazi dabe bigarrenez. Pelotariak Olarreta Larrabetzuko pelota klubean dabilz entrenamenduak egiten, eta euren garaipenaren zein txapelketak emakumeen pelotari egin deutson ekarpenaren gainean aritu gara.

t:I. Marina / a: Emakume Master Cup eta O.A.

Arrizabalagak eta Etxanizek 22-7 irabazi eutsien Patri Espinarri eta Eneritz Arrietari, Lehen Mailako final handian. Titulua berretsi dabe eta, zelan ez, pozpozik azaldu dira. "Lehenengo urtean irabazita, hurrengoan be pentsetan dozu irabaztea. Gainera, bikote bera izanda oso polita izan da", esan deusku Leirek. "Halango txapelketa baten parte hartu eta jokatu ahal izatea, egundoko esperientzia izan da guretzat", gaineratu dau Olatzek. "Alde batetik, pelotan berriro jokatu ahal izateko aukerea emon euskuen igaz; eta bestetik, txapelketeak igaz lortu eban garrantzia ikusita, bada, lortu dogu bai nesken kirola bultzatzea, bai errespetu apur bat".

Izan be, biek 15 urtegaz utzi eutsen pelotan aritzeari, mutilakaz jokatzen ez baeben, ez ebelako euren ibilbideagaz aurrera jarraitzeko aukerarik. Laboral Kutxa Emakume Master Cup joan dan urtean lehen aldiz antolatu izanak aukerea ekarri eutsen berriro. "Eskoletan dabilzan neskatilentzat inportantea da holango erreferenteak eukitzea. Gainera, uste dot txapelketa honi esker aukera gehiago eukiko dabezala", aitatu dau Leirek.

"Txapelketak inportanteak dira, gure kirolean emakume erreferente gitxi dagoelako"

Olatzek nesken pelotea eta kirola orokorrean hartzen dabilzan garrantzia azpimarratu dau. Gernikarrak Bizkaiko neska gazteak eroaten dauz kontzentrazinoetara eta azkenean 30 pelotari gaztek eman dabe izena. Hori kopuru eta seinale ona da, bere eretxian. "Txapelketak inportanteak dira, neskek euren erreferenteak izateko, gure kirolean erreferente gitxi dagoelako. Partiduak telebistan emon dabez eta hori be bada aurrera jarraitzeko eragingarria". Azkenaldian, nesken kirola gero eta ikusgaiago dago komunikabideetan. "Esan lei hasi dirala guri kasu gehiago egiten. Guk be txapelketearen oihartzuna aprobetxau behar dogu".

Antolatzaileek eurek adierazo daben moduan, aurtengoa txapelketa historikoa izan da. Bai ze aurreko marka guztiak hautsi eta ehun pelotarik baino gehiagok hartu dabe parte txapelketak iraun dauen hilabete bietan jokatu diren bost kanporaketetan. "Gauza handia da guztiontzat", esan dau Leirek. Kanporaketa horreetako bi Txorierrin izan dira, Larrabetzun eta Zamudion, hain zuzen be. Era berean, final historikoa bizi izan zan Astelena Eibarko pelotalekuan. Harmailak pelotazalez lepo egon ziran eta giro ederra izan zan partidu aurretik, bitartean eta baita ostean be. Etxebarrikoak aitortu deusku ez ebala inoz imajinau halango frontoi baten arituko zanik. "Eta gainera, jentez gainezka. Oso polita izan zan". Olatzentzat be bai. "Guk ez daukagu hainbeste jenteren aurrean jokatzeko ohiturarik, eta frontoira urtetea eta 1.000 pertsona ikustea... ba, itzela izan zan. Erakutsi dogu frontoi bat bete eta jentea erakarteko gauza garela. Orain aurrera jarraitu behar dogu eta etorriko diren erronkei heldu".

Txapela defenditea

Gernikarren esanetan, txapelketearen hasieran "apur bat arraro" sentidu zan, "urte oso bat palan jokatzen emon dodalako, baina gero neure burua gero eta hobeto ikusi dot txapelketan". Leireren ustez, konfiantza osoz emon dabe euren maila. "Egia da finalaurrekoetan ez ginela oso ondo ibili, baina partiduak jokatu ahala hasi ginen geure buruan konfiantza berreskuratzen, eta irabazi egin genduan". Hurrengo txapelketeari begira, argi dago helburua. "Txapela defenditea, noski. Gure mailari eusten badeutsagu, posible da, baina ez dogu ahaztu behar aurkariak be indartsuak direla". Txapelketa bi irabazi ostean, Olatzek ez dauka argi hurrengo urtean be alkarregaz jokatzen utziko deutsiela. "Gatxa izango da. Halanda be, ziur nago bakotxa bere aldetik saiatuko dana finalera ailegaten eta hori irabazten. Master Cupi jagokonez, zein Bizkai eta Euskal Herri mailan dagozen beste txapelketa batzuei jagokenez be bai".

"Lortu dogu bai nesken kirola bultzatzea, bai errespetu apur bat"

Bitartean, daukiezan konpromisoez arduratuko dira. "Joan dan urteko txapelketearen ostean igarri genduan handik eta hemendik dei asko jasoten genbilzala erakustaldietan eta partiduetan parte hartzeko. Gitxienez 30 partidu jokatu genduzan leku ezbardinetan. Aurtengo Aste Santuan be Zamoratik ibili gara Leire eta biok. Pelota modan ipini da eta aprobetxau behar dogu". "Ilusino handiagaz jokatuko doguz partidu horreek guztiak", ziurtatu dau Leirek.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

"Antzerkiagaz zerikusia daukan zerbait egin gura dot"

MAREN BIDAURRAUZAGA IRAZABAL | aktorea

Gabonetan *Oliver Twist* antzezlana aurkeztu zan Euskalduna jauregian eta oholtza gainean ikusi geinkean aktoreetariko bat Maren izan zan. Sondikako gazteak antzezteko gaitasuna dauka eta bere ibilbidea hortik jorratu gura dau. Bere proiektuak euki doguz hizpide.

t: Itxaso Marina /a: I.M. eta M.B.

Zein da zure papera *Oliver Twist* musikalean?

Paper bi daukadaz: alde batetik, Noah Claypole naz, Oliver istorio osoan zehar izorratuko dauen ume "nazkagarritxua"; eta bestetik, Oliver doan gordelekuko umeetariko bat be banaz. Noahena paper handiagoa da. Dana dala, ez dot inongo arazorik euki paper biak ikasi eta buztarteko orduan.

Zelan etorri jatzun musikal horretan parte hartzeko aukerea?

Lagun batzukaz joan nintzan castingnera, erdi txantxetan eta hartuko ninduen esperantza gitxigaz. Baina akabuan ez zan hain txarto urten (kar, kar).

Hasieratik euki dozu argi musikalak egin gura zenduzala?

Ez, abotsa intonatzen banekian be, abotsa lantzen hasi arte ez neban inoz pentsau kantatzeko gauza nintzanik. Halanda be, esan behar dot *Oliver Twist* ez dala nire lehendabiziko musikala izan. Hamabi urte neukazala, *Sonrisas y lágrimas* musikalerako hartu ninduen ordezko moduan. Ez nintzan agertokian azaldu, baina entseguak-eta egin behar izan nebazan, badaezpada.

Eta zelan izan zan agertokira abestera urten zinan lehenengo aldi hori, *Oliver Twist* musikalean?

Oso ondo urten zan, izan be ni beti egon naz oso gustura eszenatoki ganean; ez naz inoz urduri ipini… eta Euskalduna oso areto handia da, gainera. Urte oso bat euki dogu musikala prestetako eta, hasierako entseguak apur bat gogorrak izan badira be, dana euki dogu prest estreinaldirako eta azken egunotan oso lasai ibili gara.

Eszenatoki gainean oso gustura zagozala dinozu. Izan be, aurretiko esperientzia be badaukazu.

Sondikako Gaztetxean dagoen antzerki tailerrean egon naz eta SKAn antzeztu doguz zenbait lan. Iragarki batzuk be egin dodaz telebistarako eta enpresa baten barne-komunikaziorako, eta gaur egun ETBko *Bago!az* saioan hartzen dot parte. Hori talent show bat da eta irabazten dauena *Go!azen* telesailera doa.

Pozik zagoz?

Oso. Gainera, ez neban pentsaten inoz abestuko nebanik, eta gero bazoaz ikastaroak egiten eta akabuan ez dago hain txarto. Oliver Twist disko baten grabatu dogu; 12 abesti dira.

Zure ibilbidea hortik, musikaletatik, bideratuko dozu?

Ez dakit; dana ikutu gura dot. Nik antzerkiagaz zerikusia daukan zerbait egin gura dot, telebistan, plato batean edo oholtza gainean… bardin deuts zer. Gustura nago baten zein bestean.

Zer daukazu orain esku artean?

Beste musikal bat prestetan gabilz. Esan neiken gauza bakarra da familia osoari zuzendutako lana dala eta muina betiko ipuinak dirala. Uste dot Gabonetarako estreinatuko dala. Bestetik, uste dot Oliver Twist Bilboko jaietan antzeztuko dogula.

Noz erabagi zenduan aktorea izan gura zenduala?

Txikitan. Antzerkigintzea beti gustatu jat eta eskolan hasi nintzanetik beti egin dot eskolaz kanpoko ekintza moduan. Paper ezbardinak antzeztea gustetan jat.

Zein da zure prestakuntzea?

Lehen esan moduan, Gaztetxeko antzerki taldean ibili naz, baina aurten ezin izan dot bertan izena emon, ordutegia txarto jatortalako. Orain Bilboko akademia baten nago eta esku artean daukadana amaitzen danean, saiatuko naz antzerki eskolaren baten sartzen.

"Beti egon naz oso gustura eszenatoki ganean; ez naz inoz urduri ipini"

DBHko laugarren kurtsoan zagoz. Institutukoaz ganera gidoiak be ikasi behar dozuz. Gatxa da biak buztartzea?

Egia esateko, ez jat kostatzen. Dana eroaten dot ondo.

Aktore moduan, zelan ikusten dozu etorkizuna?

Gatx. Halanda be, uste dot nahiko suerte handia daukadala, 16 urtegaz nahiko gauza egin dodalako.

Antzerkigintzaz ganera, beste ikasketa batzuk egiteko asmorik badaukazu?

Filologiaren bat ikasiko dot: euskal filologia, ingelesa… Aktorea ez banaz, maisua izatea gustauko litxakit.

"Eskolan hasi nintzanetik beti egin dot antzerkigintza eskolaz kanpoko ekintza moduan"

Txorierriko gazteak euskaraz gozatzen

Mihiluze txapelketan, 10-11 urteko umeek Txorierriko berbak, toponimia, birziklapena… landuko dituzte besteak beste, sortu den material berriaren bitartez

Txorierriko Mankomunitateak zazpi urte daramatza Mihiluze txapelketa antolatzen bosgarren eta seigarren mailan dabiltzan neska-mutilentzat. Txapelketa honek helburu hauek ditu: gaztetxoek ikastetxeetatik kanpo euskaraz jolastea, hizkuntza lantzea, ondo pasatzea eta erabileran eragitea. Urtero, batez beste, 150-200 umek hartzen dute parte, beraz txapelketa oso arrakastatsua dela esan dezakegu zalantzarik gabe. Aurten ere, martxotik ekainera, buru-belarri dabiltza Txorierriko 160 ume euren herriko ludoteketan jokatzen.

Urtero berrikuntzaren bat sartzen saiatzen gara txapelketan, eta iaz finalean laugarren bikotea sartu genuen moduan, aurten material berria argitaratzea pentsatu dugu. Urteetan zehar finalerako galdera berriak prestatu edo moldatu ditugu eta bertan hainbat gai desberdin landu izan dira: Txorierriko berbak, toponimia, birziklapena, ikastetxeetan lantzen dituzten edukiak… Hori dela-eta, aurten, material hori guztia umeek aurrez ludoteketan lantzea oso aproposa izan zitekeela pentsatu dugu, eta Mihiluze fitxa berriak egin ditugu; 136 fitxa berri, hain zuzen ere. Txorierriko herri guztietako ludoteketan eta ikastetxeetan banatu dira fitxak, eta une honetan jolasten dabiltza gure herrietako gaztetxoak. Horrela, urteroko materialarekin ez ezik, eurengandik hurbilago egon daitezkeen eduki eta bertako eskualdeko berba, esamolde eta abarrekin ere jokatu ahal izango dute.

Maiatzaren 18ra arte, herri bakoitzean ibiliko dira kanporaketak egiten, eta maiatzaren 25ean, Larrabetzun eta Sondikan aldi berean egingo diren finalaurrekoen ondoren, puntu gehien ateratzen duten bikoteak, ekainaren 8an, Derioko Kultur Birikan egingo den finalera pasatuko dira. Zorte on guztiei!

Txapelketak, besteak beste, gaztetxoek ikastetxeetatik kanpo euskaraz jolastea, eta erabileran eragitea du helburu

Txorierriko G Esku Hartz lagu

Zerbitzuak gizarte eta hezkuntza arloko laguntza ematen du familiekin lan egiten duten beste erakunde batzuetako profesionalekin elkarlanean, eta banaka, familiekin edota taldeekin esku hartuz.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Gizarte eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Taldeak zerbitzu ematen die gizarte-arriskuan dauden gazteei eta haien familiei, eta 2017an 52 familia artatu zituen. Horrez gain, artatutako kasuetatik sei itxi zituen, helburuak bete zituztelako.

Azken batean, zerbitzu honen bitartez, gizarte eta hezkuntza arloko laguntza emateko harreman-prestazio sorta bat eskaintzen da. Prestazio horiek banaka, familian edota taldeka jaso daitezke, hala familiaren etxean nola komunitate-eremuan. Horretarako, pertsona eta familia horiekin zeharka lan egiten duten beste erakunde batzuetako profesionalekin batera lan egiten da. Profesional horien

Gizarte eta Hezkuntzan eko Taldeak 52 familia undu zituen iaz

artean, bereziki garrantzitsua da honako hauekin koordinatzea: gizarte-zerbitzuak, dagokien udalerrietako erreferentziazko gizarte-langilea eta Mankomunitateko zerbitzu psikosozialeko psikologoa. Baita honako hauekin ere: Osakidetza, Lanbide, Eusko Jaurlaritza eta halako erakundeak, abokatu-bulegoak, Bilboko Epaitegietako esku-hartze psikosozialeko taldeak eta Argia Fundazioa. EISE, besteak beste, 14 ikastetxerekin koordinatu da aurten; horietako bederatzi Txorierrin daude.

EISEren lanaren oinarrietako bat da familien dinamikan aldaketak egitea eta horren bidez hezkuntza-jarraibideen erabileran, komunikazio-kanaletan eta etxeko eta higienearen antolakuntzan dauden arazoei aurre egitea. Alde horretatik, aldaketa horiek egiteko beharra sentitu duten familia batzuekin lan egin da. Horretarako, bereziki landu da familien motibazioa eta familia bakoitzak dituen zailtasun eta berezitasunen inguruko kontzientzia. Horren helburua da, batetik, familia horiek esku-hartzearekin lan egiteko jarrera irekiago bat izatea, eta, bestetik, EISEko eta beste erakunde batzuetako profesionalekin lotura bat ezartzea.

Beste kasu batzuetan, ordea, jarrera erresistenteagoa izan dute: ez zuten elkarrekin lan egin nahi, eta, gainera, arazoaren gaineko kontzientzia gutxi zuten. Bestalde, familia batzuek, esku hartzeko prozesua onartu bazuten ere, ez dute jarraikitasunik izan hartutako konpromisoak aurrera eramateko. Faktore horiek guztiek zaildu egiten dute bilakaera bat izatea eta gizarte eta hezkuntza arloko prozesuaren helburuak lortzea, baina horiek ez dira izan prozesua zaildu duten faktore bakarrak: aurten, besteak beste, baliabide ekonomiko gutxiago izan dira, gizarte- eta familia-sareak ere murriztu egin dira, gaixotasun psikiko batzuk tratamendu medikoarekin tratatu dira, gaitasun intelektuala mugatua izan da, eta baliabide pertsonal eta gaitasun sozial gutxi izan dira.

Halaber, esku hartu den kasuetan, honako ezaugarri hauek hauteman dira: zailtasunak hezkuntza-jarraibideen erabileran (jarraikitasunik eza autoritate-jarraibideetan, arduragabekeria, elkarrizketa falta, gurasoen eta seme-alaben arteko adostasun falta…), zailtasunak seme-alaben jokabide bortitzak kontrolatzeko (bereziki nerabezaroan), gurasoek seme-alabak ikastera ez animatzea, komunikazio-kanal desegokiak, autoproposatutako helburuei modu konstantean erantzuteko zailtasunak.

Denera, 14 kasu itxi dira 2017an; horietatik sei proposatutako helburuak bete direlako. Beste hiru kasu familiak hala eskatu duelako itxi dira; beste bi bideratu egin direlako, eta beste bi, udalerriz aldatu direlako. Kasuetako bat baino ez zen itxi, familiak utzi egin zuelako.

Artatutako kasu gehienak (% 51) urte berean ireki dira. Arreta-eskaera gehienak (% 44) oinarrizko gizarte-zerbitzuen bitartez iritsi dira EISEra, baina baita familiengandik (kasuen % 19), ebaluazio-, diagnostiko- eta bitartekaritza-zerbitzuetatik (SEDIM) (kasuen % 18), Osakidetzatik (% 11), Txorierri BHItik (%4) eta Epaitegitik (% 4) ere.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

Antzinako gauzakaz liluratua

Txomin Ibarra Azkorra

Txominek Olako baserriko portxean egin deusku harrerea, eta, ia gura barik, begiak hormetara joan jakuz, traste bitxiz beteta dagozalako. *"Baina zenbat gauza daukazu? Uf! Batek daki!"*. Sondikoztarrak antxinako gauzen bilduma egiten dau eta bere zaletasuna euki dogu hizpide. Baita kirol munduan izan dauan ibilpidea be, adierazo deuskun moduan, lehian sartzea be euki daualako afizino.

t / a: Itxaso Marina

Txominek mundu osotik egin dau bidaia. Herri batzuk aitatzearren, Australian egon da, Egipton, Argentinan, Costa Rican eta Estatu Batuetan. "Asko gustau jat bidaiatzea, baina orain, hobeto etxean". Eta egin dauzan bidaia horreetatik guztietatik ekarri dauz oroigarri bitxiak. "Gauza arraroak izaten dira. Esate baterako, Keniako militar bati erositako borrea. Bere formeagaitik, oso bitxia iruditu jatan eta bidaiako gidariari esan neutsan militarrari adierazoteko erosi gura neutsala. *Ez, ez. Zuri saldu ezkero, gartzelara joan neinteke…* Eta gero galdetu eustan: *Beno, zenbat ordainduko zeunskit?* (kar, kar). Bidaia horretatik pneumatikoez egindako zapatilak be ekarri ebazan etxera.

Dana dala, portxeko hormetan eskegi dauzan traste eta erreminta gehienak Frantzia aldean erosi dauz. "Hor badago leku asko antxinako gauzak erosteko". Bertan bere saltsan dagoz, beraz. Txominek herri eta garai askotako objektuak batu dauz: atxurrak, baleak harrapatzeko erremintak, kataloxak, balantzak, antxinako argazki kamera eta trikitixa –oraindino dabilena-, emaztearen izena ipini deutson itsasontzi baten brankea, ingude bat, hauspo handi bat, gurpil zorrotzaile bat, familiarena izan zan kalesea… Zerrendea oso luzea da. "Zaharrena eskopeta bat da. Uste dot 500 urte inguru eukiko dauzala". Gauza horreek guztiak bereziak dira Txominentzat eta gatxa egiten jako esatea zein dan bitxiena. Guztiek daukielako euren xarmea. "Beharbada, gartzela bateko giltzea. Oso-oso pisutsua da eta pentsa eizue gartzelariak poltsikoan hontako bat baino gehiago eroan behar baeban… (kar, kar). Ez dakit nongo gartzelakoa dan, baina saldu eustanak esan eustan 300 urte baino gehiago eukiazala". Euki eban lehenengo suhiltzaile kaskoa be ipini dau horman. Txomin suhiltzailea izan dalako, erretiroa orain dala 15 urte hartu eban arte.

Sondikoztarrak denpora asko inbertitu dau bere zaletasunean. Eta dirua. "Baina ez dogu esango zenbat, ados? Emaztea ez haserretzeko…". Antxinako gauzak biltzeari "zer edo zer egitearren" ekin eutsan, "geldirik ez egotearren". Baina, egia esan, Txomin ez da aspertzen dan gizona, lan dezente egiten daualako egun osoan zehar. "Altxau eta jaten emoten deutset olioei, euren lekua atondu eta garbitu egiten dau. Txoriakaz be bardin". Izan be, oso gauza bereziak ez ezik oso txori bereziak be badaukaz: paumak eta faisaiak, tartean. "Lagunek oparitutakoak dira". Txoriak patxadan dagoz Txominek prestau deutsen txori toki erraldoian. Leku batetik bestera. "Soloan be egiten dot lan apur bat, eta mandaduak egitera joaten naz. Arratsaldean andreari laguntzen deutsat Bilbora eta ez daukat telebistea ikusteko astirik be. Noizean behin bidaiaren bat egiten dogu…".

Kirolzalea

Txominek 77 urte daukaz eta Larrondokoa da. Halanda be, aireportua egin ebenean handik bota eta Olara etorri zan familiagaz. Eta Olara ezkondu zan, solasean ibili garan baserrira hain zuzen be. Tornulari-mekanikoa izan da, iturgina eta suhiltzailea. "Hiru lanak gustau izan jataz, baina suhiltzaile egin nintzan baldintza hobeak eskaintzen eutsazalako. Baserrian gitxi egin dot lan, ez jat inoz asko gustau".

Suhiltzaile ibiltzeko, sasoian egon behar da eta sondikoztarra persona kirolzalea izan da beti. "Gazteetan bizikletaz ibilten nintzan eta lasterketa askotan hartu neban parte". Inportanteena Asturiaseko Itzulia izan zan. Lasterketa horretan parte hartu ahal izateko, tranpea egin eban. "Medikuarenera joan nintzan eta gaixorik nengoala esan neutsan. Bajea emon eustan. Izan be, lasterketak zortzi

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

etapa eukazan eta, ondorioz, Asturiasen zortzi egun egon behar ginan. Etapa sendoak izan ziran, 70 kilometro ingurukoak, eta gu ia entrenau barik joan ginan; ez orain moduan… Bultaco taldeagaz joan nintzan beste bost txirribdularikaz batera. Lasterketea amaitzea bakarrik bik lortu genduan; besteek itxi egin eben".

Bizikletaz ibilteari 20 urtegaz itxi eutsan. "Afrikara, Melillara, agindu ninduen soldadutza egitera eta profesionalean ibiltzeko taldea baneukan be, bizikletea itxiteko erabagia hartu neban, ia hutsetik hasi behar nebalako". Orduan, zaldi eta asto probei ekin eutsan. "Familian ez da inor egon zaletasun hau euki dauanik; neu bakarrik. Probak ikustera joaten nintzan eta afizinoa hartu neban. Gainera, konpetitzea beti gustau jatanez, bada, hasi nintzan". Oraintsu arte ibili da txapelketetan, erronketan eta erakustaldietan parte hartzen, Hego Euskal Herrian zein Iparraldean, eta garaipen asko eroan dauz etxera. "Zaldi onak eduki dodaz, baina txarrak gehiago". Poniak be izan dauz eta behin zirkoko elefante bategaz ausartu zan arraste-erakustaldia egitera. Era berean, ahari-talketan hartu dau parte. "Egin ez dodana posturea egitea izan da; ez jat inoz gustau". Proba horreetan parte hartzeari adinagaitik itxi deutso. "Pena izan da, baina kalendario partida daukat".

Daukan gauzarik zaharrena eskopeta bat da, 500 urte ingurukoa dana

Eroica

Lehiarako daukan zaletasunak Espainiako Suhiltzaile Beteranoen Txirrindularitza Txapelketan izena emotera animau eban. "Lankide batek joango zala esan eustan eta gogoa biztu jatan… *Ni be banoa*, esan neutsan hurrengo egunean. *Baina ez dozu entrenau!* Bardin deutso, erantzun neutsan. Hirugarrena lotu nintzan". Eta, 61 urte eukiazala, Sondikatik Gorbeiaraino oinez joateko erronkari baietz esatera be. "Ez da erraza 50 kilometro egin behar diralako, eta tontorrera igon. Ez nintzala gauza izango esan eusten, eta erakutsi neutsen banintzala. Bost suhiltzaile joan ginan".

Semeari lagundu deutso Paris-Roubaix eta Lieja-Bastoña-Lieja lasterketetara, eta igaz, bizikletea hartu eban azken aldia urteak zirala, animau zan beragaz batera Eroica britainiar lasterketan parte hartzera. "Hemendik apur bat entrenatu eta listo!". Probea Manchesterren izan zan eta parte-hartzaileek antxinako bizikletak erabili behar ebezan, pedal automatiko eta abiadura-kaxa moderno barik eta babes-txanoa. "Hiru ibilpide dagoz: 20koa, 45eko eta 80koa. Semeak 45ekoan emon eban izena, baina hara ailegau ginanean konturatu ginan ez zirala kilometroak, miliak baino: 72,42 kilometro hain zuzen be. Pentsau neban ez nintzala lasterketea amaitzeko gauza izango… Semeak bultzau behar izan ninduan azken kilometroetan eta holan lortu neban helmugara heltzea. Oso esperientzia polita izan zan, errepikatzeko modukoa, baina hurrengoan 20koa egingo dogu! (kar, kar)".

Bere azken balentria Eroica britaniar lasterketan parte hartzea izan da. Kostata, baina helmugara heldu zan

Nasai bizi da Txomin, bere erretiroaz eta afizinoez gozatzen. Gainera, okintza eta gozogintzarako gaitasuna be badaukala deskubridu dau. "Lagunak, txirrindulari ospetsuak izan diranak, Anton Barrutia, Carlos Etxebarria, San Miguel…, batzuetan etortzen dira txokora bazkaltzera, eta nik ogia eta euskal pastela prestatzen dodaz laban. Arkumea erre… Zerbait egin behar da". Amaitzeko, sondikoztarra asmatzailea be izan dala aitatu behar dogu. Izan be, txapelketetan, bedar-zamea altxatzeko tripodea berak asmatu eban. Gizon bitxia eta interesgarria da Olakoa, bai horixe!

Antxinako pasadizoa

Bere zaletasunaz eta kirol ibilpideaz mintzatzen garen bitartean, antxinako pasadizoagaz akordau da Txomin, eta hori idazteko esan deusku, ez dagoalako inon jasota. "1960 edo izango zan, eta Larrondon, Elotxelerriko eskoletan, bozketea antolatu zan: Franco sí ala Franco no. Ez dakit nik beste herri batean be holangoa egingo ebenik… Beno, gauzea da Erregimenaren aldeko bat aitari hurbildu jakola: *"Aizu, Fermín! Botoa emongo dozu?". "Bada, ez, ezin dot, behiakaz joan behar dot". "Beno, bardin da; neuk emongo dot zure ordez botoa. Izan be, beste batzuen ordez be egin behar dot. Eta badakizu zertarako dan botazinoa?". "Bada, ez, ez dakit". "Franco sí o Franco no: Franco sí botetan badozu, Francok poterean jarraitzeko da. Eta Franco no botetan badozu, poteretik kendu ez dagien".* Uste dot bakarrik bi edo hiru falangista joan zirala botoa emotera". Botazino horren emaitza zein izango zan, botoak zenbatu baino lehen zegoan argi, beraz.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

Sorpresakaz eta nobedadeakaz datoz sanisidroak

Aurreko urteetan moduan, herritik eginak eta herriarentzat izango dira San Isidro Derioko jaiak. Halan, San Isidro jai batzordeak adin guztientzako herritarrei zuzendutako ekintzak antolatu dabez maiatzaren 11tik 15era bitarterako. Euskerea, kultura eta parekidetasuna euki dabez kontuan, jaiak antolatzeko orduan.

TXEPETXA aek ■ euskaltegia
Ondo pasa jaietan!
Eutsi euskaraz berba egiteko konpromisoari
aek
Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

DERIKO JAI

SAN ISIDRO 2018

maiatzak 11-15

11 BARIKUA

- 19:00 Pregoia. Traka eta Txitxiburduntzia
  Castells. Txaranga. Buruhandiak...
- 20:00 Udaberriko kontzertua
  IPAR-ALDE. GAZTELUMENDI eta LIRAIN TXIKI abesbatzak
- 20:30 Txosnagunera igoera txarangarekin eta txosna irekiera
- 22:00 Kontzertuak

HARDCORE.EXE
HUMUS
WILLIS DRUMMOND
BATEK DAKI erromeria

12 ZAPATUA

- 12:30 MUGI ZAITEZ disko festa
- 14:30 Tortilla txapelketa. ostean BAZKARIA
  Bazkalostean JOKUAK
- 18:00 Euskal Dantzak LAINOMENDIrekin
- 19:00 Pintxopotea KARAOKE ibiltaria
  eta buruhandiekin
- 22:00 Kontzertuak

BURUTO
BULTZ!
HESIAN
Dj MARKELIN

13 DOMEKA

- 11:00-15:00 XXIII. Elikagai eta eskulangintza azoka
- 15:00 HERRI-BAZKARIA
  Bazkalostean BINGOA
- 16:30 Bizkaiko 4½ txapelketa (Finalak. Kopa Derio)
- 17:00 BOCABEATS COMEDIA
- 18:30 PIPERDUN taldearen ekitaldia
- 19:00 Txitxarrilloa

14 ASTELEHENA

- 19:00 Kale-antzerkia FUNES VAN (The Funes Troup)

15 MARTITZENA

- 11:30 Marrazki lehiaketa
- 11:30-13:30
  16:00-19:00 Ume eta gazte ekintzak
- 12:30 Meza nagusia
  Biribilketa
- 19:00 XAIBOR
- 20:30 Txokolatada
- 21:00 Jai amaiera

Derio

SUTONDOAN, ODOL ARGIA, SUBIKE, GURE SEÑEAK, LAINOMENDI, PIPERDUN eta beste askorekin elkarlanean.

LEKUA/LUGAR
- HERRIKO PLAZA
- TXOSNAGUNEA
- FRONTOIA+KANTXAK
- ESKOLAK
- SAN ISIDRO ELIZA
- KULTUR BIRIKA / FROINTOI ATZEALDEA

DERIO ko jai BATZORDEA

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

a: Aner Mentxaka

Era berean, eta urtero moduan, herriko alkarteen laguntzea be eukiko dabe jaiek irauten daben egunetan zehar. "Sutondoan, Subyke, Derioko Elikagaien Alkartea, Odol Argia, Gure Señeak, Lainomendi, Derioko Argazki Taldea, Piperdun... eta askoz gehiagok lagunduko dabe asteburuan egingo diran ekintzetan".

Pregoia Sutondoan alkarteko emakumeek botako dabe barikuan. "Hogeta bost urte bete dabez eta data berezi hau atxakiatzat hartu dogu, hainbeste urtean herrian egin daben lana goraipatzeko". Abesbatzen kontzertua be izango da bariku arratsaldean, eleizan, eta jai-guneko agertokian honeek arituko dira 22:00etatik aurrera: Hardcore.exe, Humuss eta Willis Drummond. Batek Daki erromeria taldeak amaiera emongo deutso gauari.

Jai tropikala erakargarri bat izan da aurreko urteetan, baina jai-batzordetik adierazo daben moduan, aurten ez da egingo. "Formatua aldatuko dogu eta apaingarri barri zein sorpresa asko egongo dira". Koadrilen arteko txapelketearen formatua be barrituko da. "Esate baterako, probak egongo dira gauean, eta zapatuan tortilla txapelketea egingo da. Gainera, txapelketan parte hartu ahal izateko, ez da beharrezkoa koadrila baten partaidea izatea; irekia izango da".

Besteak beste, Hardcore.exe, Humuss, Willis Drummond, Buruto, Bultz! eta Hesian taldeek eskiniko dabe kontzertua

Herri bazkaria domekan egin dabe azken urteotan, baina aitatutako tortilla txapelketaren harira, zapaturako be antolatu dabe herri bazkaria. Bazkalostean, jokoak egongo dira eta Lainomendi dantza taldeak be eskiniko dau ekitaldia. "Gainera, arratsaldeko pintxopotean karaoke ibiltari bat eukiko dogu, kalea alaitzeko". Kontzertuak honeen kontura izango dira: Buruto, Bultz!, Hesian eta Dj Markelin.

Apainketa berezia

Domeka goizean, Elikagai eta Eskulangintza azokea egingo da 23. aldiz, eta arratsaldean Bizkaiko Lau eta Erdiko txapelketearen finalak izango dira. Bocabeats taldeak umorezko ikuskizuna eskiniko dabe; eta Piperdun taldekoek, flamenko eta sevillanen ekitaldia. Egun nagusia martitzenean izango da, eta bezperako herritar guztiei zuzendutako kale antzerki bat antolatu da. Azkenik, martitzenean, San Isidro egunean, marrazki lehiaketea, umeentzako eta gazteentzako ekintzak, disko festea eta txokolatadea egongo dira.

Jai-guneari jagokonez, eta jai-batzordetik esan deuskuenaren arabera, ekintzak herriguneko eremu ezberdinetan egingo dira. Halanda be, gune nagusia txosnagunea izango da eta txosnak modu berezi baten apainduko dabez aurtengo jaietan.

Sorpresak egongo dira jai tropikalaren ordez, eta koadrilen txapelketearen formatua be aldatuko da

BC FUN
Fitness Gym
Saio pertsonalizatuak, entrenatzaileen eskutik
BCF entrenamendu funtzionaleko gunea
(HIIT makinak, kaiola funtzionala...)
Taldeko BCF saioak
(zikloa, zumba, fitbox...)
Ekaini: bagarkia eta matrikula DOAN
BCF kardiobaskularrak
(high intensity eremua, indoor triatloia...)
BCF muskulazioa
628836753 - 944520815
3. nabea, 9. lursaila, Ugaldeguren II
48170 ZAMUDIO

Estudios 10 Ikastegia
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19
Pakearen Plaza 3 beheа
48160 Derio (Bizkaia)

OPTIKA moderna
Ikusmena graduatzea
Zenbait motatako betaurrekoak
Lentillak egokitzea
Aizkorri, 1
48160 Derio
94 454 37 99
www.opticamoderna.es

Ane Aretxabaleta
ile-apaindegia
aurretiko hitzordua
solariuma
944543580
Gorbea 8, Derio 48160

Liliak
Loradenda
Ondo pasa jaietan!
Erdiko kalea, 2 / 48160-DERIO
94 454 12 23
www.liliak.eus
Facebook: liliak loradenda

TXIMINTX
DERIOKO EUSKARA ALKARTEA
Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!
Derio

Plater conbinatuak
Ogitartekoak
Kaxolak
CAFETERÍA BIZKARGI
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

Imaz TABAKOAK
Opariak eta osagarriak
Puruak grabatzea
Mobilak kargatzea
Banik txartela kargatzea
Gorbea, 6 | 48160 Derio | 94 454 07 69

BUSTAMANTE
PARAFARMACIA DIETETICA
Erdiko kalea 2- trasera
48160 Derio
tlf. 94 454 00 70

Txirrindulari gazteentzako taldea sortu da Lezaman

Apirilean, Zorribike-Gela Pedagogikoa BBT taldea aurkeztu da jendaurrean. Egitasmoa 14 urtetik 18 urtera bitarteko txirrindulariei dago zabalik eta, besteak beste, helburu hauek ditu: gazteek mendiko txirrindularitzan aritzeko aukera izatea, trebatzea eta ondo pasatzea.

a: Ibon Maruregi

Taldea Zorribike Lezamako txirrindularitzaren eta Gela Pedagogikoaren arteko hitzarmenari esker sortu da. Jose Manuel Olanok, Zorribike elkartearen presidenteak, azaldu digun moduan, "alde batetik, Gela Pedagogikoak bere gazteei BTT modalitatean jarraitzeko aukera emateko beharrizana zuen; eta, bestetik, gazteei zuzendutako taldea sortu nahi genuen Zorribike elkartearen barruan".

Zorribike-Gela Pedagogikoa BTT taldea 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteentzat da eta gaur egun bost txirrindulari daude barruan, kadete eta jubenil kategorietan. "Taldea edozein gazteri dago zabalik, mutil zein neska, lezamarrei, txorierritarrei zein inguruko herrietakoei". Horrela, ba, Zorribike taldetik animatzen dituzte gazteak hara joan eta saiatzera. "Eta bereziki neskak animatu nahi ditugu. Izan ere, oso neska gutxi dira bizikletan ibiltzen direnak eta asmatu behar dugu horiek era batean edo bestean kirol honetara erakartzera". Taldeak sortzen dituen gastuak erakunde biek hartu dute euren gain, eta txirrindulariek ez dute ezer ordaindu behar.

Sustatzaileek txirrindulariak lasterketetara eramatea dute helburu, "baina ez irabaztera", zehaztu du Olanok. "Nahi dugu gazteek jakitea zer den lasterketa bat, eskola-kirola egiteari utzi ondoren, ikus dezaten zer den kirola apur bat serio egitea. Era berean, txirrindulariak trebatu eta futbola ez den kirol alternatiba bat eman nahi diegu, ondo pasa dezaten. Eta horretaz guztiaz gainera, garaipenak badatoz, ba, hobeto. Baina ez da helburu nagusia".

Baseari indarra

Lasterketen haritik, aipatu beharra dago Zorribike-Gela Pedagogikoko txirrindulariek jadanik proba bitan hartu dutela parte. "Guztientzat izan da lehenengo aldia holango lasterketa batean eta, logikoa denez, ez dira oso ondo ibili. Gauza bat delako Gela Pedagogikotik atera eta lagunekin bizikletan ibiltzea, eta beste gauza bat lasterketa batean aritzea. Hala ere, lasterketa amaitu dutenean, eta oso nekatuta ibili diren arren, poztasuna sumatu dugu beraien aurpegian eta hori inportantea da. Dena dela, hobeto ibili dira bigarren lasterketan".

Gazteak lehiaketetara eramatea xedeetariko bat da, "baina ez irabaztera", zehaztu dute sustatzaileek

Entrenamenduei dagokienez, Zorribike elkartearen prestatzaile batek, emakumezkoa denak eta horrelako taldeetan eskarmentua duenak, zehazten du txirrindulari gazteen entrenamendu-programa. "Gazteek mila gauza dituzte astean egiteko, ikasketak tartean. Horregatik helburua da txirrindulariek eurek kudeatu dezatela euren entrenamendua, prestatzaileak ezarritakoa kontuan hartuta, noski, eta euren beharrizanen arabera. Modu honetan gazte helduak izan daitezela ere lortzen dugu".

Olanoren esanetan, apurka-apurka, eskolak sortzen dabiltza txirrindularitzan. "Gela Pedagogikoak eta Zorribikek txirrindularitza baseari indarra emateko konpromisoa hartu dugu, izan ere, gaur eguneko harrobia ez da oso handia eta hori indartu egin behar dugu".

Informazio gehiagorako: zorribike@zorribike.com

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

Jaiak irudietan batuko dira

Izan be, argazki lehiaketa egingo da lehenengo aldiz. Beste nobedade bat barikuko umeentzako berbenea da. Pazko jaiak maiatzaren 18tik 21era izango dira aurten.

Jai-egitaraua

Maiatzak 18, barikua

18:00 Txupinazoa eta karameluak botatzea, plazan. Kalejirea, Bertoko eta Gazte Elai taldeakaz.
19:00 Perretxiko jana, Kultur Etxean.
20:00 Umeentzako erromeria, Kultur Etxean.
23:00 Kontzertuak, plazan: Picadura + Urrats.

Maiatzak 19, zapatua

Sukalki txapelketea, Bidekoetxe parkean.
09:00 Izena emotea, Sukalki eta Tortilla txapelketetan. Bidekoetxe parkean.
11:00 Umeentzako jolasak Elizalde Guraso Alkartearen eskutik eta zaldi gainean ibiltzea. Bidekoetxe parkean.
12:00 Kalejirea, Zamudiotik.
14:00 Sukalkia eta tortillak aurkeztea. Sariak emotea, Bidekoetxe parkean.
18:00 Dantzak, Hiru Bat dantza taldearen eskutik. Kultura Etxean.
20:00 Udabarriko kontzertuak, eleizan: Elai Alai orfeoia (Portugalete), Iruarrizaga abesbatzea (Igorre), Salus (Iruña) eta Zamudioko Kamara Korala.
20:00 Txaranga, kaleetatik zehar.
23:00 Kontzertuak, plazan: La Basu + Esne Beltza + Akerbeltz.

Maiatzak 20, domekea

10:00 Umeen esku-pelota partiduak, frontoian. Arbolantxa Pelota alkarteak antolatua.
11:00 Mezea.
12:00 Umeentzako jolas-parkea, Kultura Etxean.
12:00 Kalejirea.
16:00 Umeentzako jolas-parkea, Kultura Etxean.
18:00 Bakarrizketa: Txabi Franquesa + De Mode Quartet. Koadrilen eta Argazki Txapelketen sariak emotea.

Maiatzak 21, astelehena

12:00 Mezea. Ostean, kopaua eleiz atarian.
16:00 Zamudion erroldatuentzako Mus eta Briska txapelketak, Adintsuen Etxean.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia
Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es
cianoplan
GLOBAL PRINTERS
BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO
902 103 763
www.cianoplan.es

CEMAN
CONSTRUCCIONES
César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Mobila: 605 727 375
Ugaldeguren Ind., 3
26-1. partzela, 2. nabea
48170. ZAMUDIO-Bizkaia

PAZKO JAIAK

MAIATZAREN **18tik 21era**, **ZAMUDION**

ERDU!

Kontzertuak,
sukalki- eta tortilla-
txapelketak, ume-jolasak,
txaranga, kalejirak...

ERASO SEXISTARIK GABEKO JAIEN ALDE

ZAMUDIOKO UDALA | www.zamudiokoudala.net

Zamudio Udala

"Espero dogu guztiok ondo pasetea, jaietan errespetuz gozatea eta eraso sexistarik ez egotea".

a: DemodeQuartet eta Gaizka Peñafiel

Aurreko urteetan egin daben moduan, Eguraldi Ona jai-batzordeko kideek zamudioztar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dabez aurtengo Pazko jaiei begira. Bisitariek be zer ikusi eta zertaz disfrutau eukiko dabe.

Itziar Landeta kultura zinegotziak eta jai-batzordeko kideak azaldu deuskunaren arabera, nobedade nagusi bi egongo dira jaietan. "Alde batetik, argazki lehiaketa egingo da. Gaia "jaiak" izango da, eta bertan gura dauan guztiak parte hartu ahalko dau eta gura dauan beste argazki aurkeztu. Irudirik politenak saritu egingo dira. Bestetik, umeentzako berbenea izango da jaietako lehen egunean, barikuan. Txupinazoa bota ostean, kalejiran urtengo dogu Kultura Etxeraino eta berbenea bertan egingo da". Umeentzako berbeneak gaueko 11ak arte iraungo dau. Ordu horretan, nagusientzako kontzertuak izango dira. "Tributuak modan ipini dira eta Zamudiora Picadura taldea ekarriko dogu. Barricada taldearen abestiak joten dabez". Igaz moduan, kuadrilen txapelketea egongo da asteburuan zehar.

Zapatuan, Sukalki eta Tortilla txapelketak egingo dira Bidekoetxe parkean. Umeentzako jolasak egongo dira, kalejirea, dantzak eta abesbatzen kontzertua. Sakatu elektrotxarangak herriko bazterrak girotuko ditu. "Gauean Esne Beltza taldeak joko dau. Gazteek proposatutako musika taldea da eta ahalegindu gara ekarten". Hareekaz batera, La Basu rap abeslaria eta Akerbeltz taldea igoko dira agertokira.

Gonbidapena herritarrei

Pelota partiduak antolatu dira domeka goizerako. Era berean, umeentzako jolas-parkea eta kalejirea egongo dira. "Orain dala urte bi-edo bakarrizketa bat antolatu zan eta oso arrakastatsua izan zan. Horregaitik erabagi dogu aurten be egitea. Itxiera polita izango dala pentsau dogu. Txabi Franquesa bakarhizketariaz gainera, De Mode Quartet be arituko da arratsaldean. Ikuskizun ezbardin bat eskaintzen dabe, a capella abesten dabelako, umorea eta antzerkia buztartuz. Publiko guztientzako ekitaldia da".

Pazko jaiak antolatzeko orduan, Eguraldi Ona jai-batzordeak herritarrek zein

bisitariek jaiez disfrutatzea eta egongo diran ekintzetan parte hartzea euki dabe helburu. "Espero dogu guztiok ondo pasetea, jaietan errespetuz gozatea eta eraso sexistarik ez egotea". Jai-batzordetik eskerrak emon gura deutseez jaiak antolatzeko batzarretan zein jaietan bertan parte hartzen daben alkarte eta partikular guztiei. "Edade ezbardinetako herritarrak be animatu gura doguz jai-batzordean parte hartzera. Izan be, laguntzea eta idea barriak behar doguz, guztiok disfrutateko moduko jai-egitaraua antolatzen jarraitu ahal izateko". Hor doa gonbidapena, beraz.

Besteak beste, Esne Beltzak, La Basuk eta Picadurak eskainiko dabe kontzertua

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

III. "Txorierriri Bira", ekainak 2

t :Bestorrene/ a: Berbalagun

Orain dela urte bi, Derioko Berbalagun talde batean ideia hau sortu zen: zergatik ez antolatu berbalagunen artean Txorierri osoko itzulia oinez? Horrela, "Txorierriri bira" lehenengo aldiz antolatu zen 2016an. Aurten hirugarren aldiz egingo dute.

"Berbalagunon artean nahikotxo mendizale gaude. Ideia bota zenean, gainontzeko berbalagunen artean zabaldu genuen eta laguntza eskatu genien bertoko mendi taldeei. Talde antolatzaile txiki bat eratu genuen, ibilbidea prestatu genuen… eta horrela egin genuen lehenengo bira", azaldu digute antolatzaileek. Helburua argi eduki zuten hasieratik. "Egun batean euskaraz egingo zuen lagun talde batek Txorierriri bira ematea eta, ostean, afaltzea. Mendia eta euskara lotu nahi genituen, hau da, mendira joanez euskara bultzatu". Espero baino jende gehiago animatu zen ekintzan parte hartzera eta horregatik erabaki zuten hurrengo urtean berriro egitea.

2016ko bira Larrabetzun hasi eta amaitu zen, eta afaria Goikoelexaldeko txokoan prestatu zuten. Hurrengo urtean, lagun gehiago gonbidatu zuten birarekin bat egitera. "Esate baterako, gurasoen bidez, Txorierriko eskolak animatu genituen gurekin ibilbidearen zati bat egitera. Baserri Antzokitik (BAN) irten eta bira bertan ere amaitu genuen afaria hartu genuela. Ibilbideari dagokionez, aurten ere iazko berdina egiteko asmoa dugu. Aldatuko dena data izango da: aurreko biak apirilean egin ditugu; eta aurtengoa, ekainaren 2an, zapatuan". Antolatzaile Berbalagun egitasmoa eta Txorierriko mendi taldeak arituko dira: Arroeta (Zamudio), Gailur (Lezama), Untza (Derio) eta Sondika mendian. "Eskolei eta nahi duen taldeari ere egin nahi diegu biran aritzeko gonbidapena. Baldintza bakarra euskaraz "ibiltzea" da".

"Mendia eta euskara lotu nahi ditugu, hau da, mendira joanez euskara bultzatu"

Etapak

Ibilbideak Txorierri inguratzen du, menditik. "Esan beharra dago ibilbide osoa luzea dela, 50 km ingurukoa, eta ondo prestatuta egon behar dela oso-oso-

rik egiteko. Hori dela-eta, oso inportantea da bakoitzak bere sasoia eta gaitasunak ondo neurtu eta ahal duena egitea. Ibilbide osoa egin daiteke, erdia edo etapaka". Lehenengo etapa BANetik Larrabetzuko plazaraino doa (14,5 km); bigarrena, Larrabetzutik Artxandako Leon jatetxeraino (11 km); hirugarrena, handik Erandiogoikoko elizaraino (9 km); laugarrena, Erandiotik Lauroetaraino (7 km); eta azkena, Lauroetatik BANeraino (ia 8 km).

"Orain arte denetarik egon da. Batzuek korrika egin dute ibilbide osoa; eta beste batzuek arin-arin ibilita, zortzi orduan. "Normalenek" 11 ordu eman dituzte ibilbidea egiteko. Hala ere, parte-hartzaile askok etapa bat edo bi besterik ez dute egin. Sondika mendian taldekoek, adibidez, Lauroetan egin zuten iaz bat birarekin eta BANen amaitu zuten. Baina argi utzi behar dugu hau ez dela lasterketa bat. Bakoitza bere erritmora doa eta, garrantzitsua dena, elkarri berba eginez. Izan ere, zeozergatik gara berbalagunak!". Etapa bakoitzaren amaieran anoa-postua atonduko da.

Google Maps

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, lehenengo urtean ez zuten ibilbidea markatu, parte-hartzaile guztiak elkarrekin joango zirela pentsatzen zutelako. "Baina, azkenean, jendea beti sakabanatzen da. Beraz, hurrengo urtean markatu egin genuen. Hala ere, hainbeste kilometro izanda, zaila da markak ondo jartzea eta nahasketa txikiena ere bada nahikoa ibilbidetik ateratzeko". Aurten, neurri batzuk hartuko dituzte ibiltariak ez galtzeko. "Alde batetik, ibilbidea aurretik azalduko diegu parte-hartzaile guztiei; bestetik, taldeka eta ibilbidea ezagutzen duenen batek gidatuta joateko aholkua emango dugu; eta azkenik, eta nobedaderik handiena dena, ibilbidea Google Maps aplikazioan ipiniko dugu eskuragarri, nahasketa ekar dezaketen lekuak adierazita eta argibide-argazki bat argitaratuta. Espero dezagun aurten inor ez galtzea".

Izena emateak euro bi balio du eta Berbalagun taldeetan egin daiteke, aurretik apatutako mendi taldeetan, 635753595 telefono zenbakira deituta edo txorierri.berbalagun@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Izena ematearen bidez batzen den dirua banatuko den edaria eta janaria ordaintzeko erabiliko da. Parte-hartzaileek Derioko kiroldegian dutxa hartzeko aukera edukiko dute. Gainera, antolatzaileek WhatsApp talde bat zabalduko dute, edozein konturen berri emateko eta Google Mapseko ibilbidearen sarrera jakinarazteko. "Egunari amaiera emateko, afaria edukiko dugu BANeko txokoan. Nahi duena etorri daiteke gurekin afaltzera, aurretik izena ematen badu. Bakarrik faltatzen zaigu eguraldia lagun izatea!"

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

Internet Health Report

t:Xabier Diaz BTEK-eko zuzendaria

Argitaratu berri da Mozilla Fundazioaren[1] 2018ko Internet Health edo Internetaren Osasuna txostena. Mozilla Fundazioak Internet ireki, pribatu eta seguru baten alde egiten du, eta Firefox nabigatzailearen egilea da, besteak beste. Txosten horretan Internet ekosistemaren osasuna aztertzen da giza ikuspegi batetik. Teknologia konpainiak gero eta boteretsuagoak dira, sare sozialak jazarpen tresna moduan erabiltzen dira, gure datu pertsonalak lapurtu dituzte eta zenbait prozesu demokratikoetan sare komunikabide eta iragarkiak erabili dira iritzia manipulatzeko. Facebooken inguruko azkeneko albisteak tartean, gero eta gehiago gara sare unibertsal horren inguruko kezkak ditugunok. Eta hori alde ona da, hortik abiatuta erabakiak hartu eta politiketan eragina izan baitezakegu.

Aipatutako txostena bost eremutan ardazten da: Pribatasuna eta segurtasuna, irekitasuna, integrazio digitala, sare alfabetatzea eta deszentralizazioa. Gainera, 2017ko hiru arazorik larrienen azterketa egiten da: "gauzen Internet babesten", "fake news" (edo gezurretako albisteak), eta "Too Big Tech?" (enpresa teknologiko handiegiak?).

Mamitsua da benetan eta hainbat orrialdetarako ematen duenez, begirada bat botatzeko gomendioa egiten dizuet. Jarraian gosegarri pare bat:

Segurtasunik gabeko segurtasun kamerak:

Shangaiko denda batean, gizon bat zapatak erosten; Argentinako etxebizitza batean, ume bat bere etxeko patioan jolasten; Bilboko metalurgia enpresa batean, langileak hodi bat soldatzen… eta

denak, zure saguaren "klik" batera. Espazio publiko zein pribatuetan segurtasuna bermatzeko dauden kamera asko Internetera lotuta daude zuzen zuzenean. Pasahitz bidez eta beste teknika batzuk erabilita segurtatu daitezkeen arren, askotan ez da egiten edo lehenetsita dituztenak uzten dira ezjakintasun edo arduragabekeriagatik. Insecam guneak horixe salatu du, eta munduan zeharreko 70.000 kamera baino gehiago zerrendatu ditu. Eta ez hackeatuta daudelako, babes barik daudelako baizik.

2020rako 30 mila milioi kamera, sentsore, … online egotea espero da. Irudiak, soinua, etxe barruko tenperatura, auto, pakete zein pertsonen posizioa… Atera kontuak…

Rusia eta EEBBetako hauteskundeak:

Rober Mueller Estatu Batuetako fiskal bereziaren txostenaren arabera,[2] Errusiako gobernuarekin lotutako hainbat erakundek Facebook-eko iragarkiak ordaindu zituzten hauteskunde aurretik eta ondoren. Baina ez hori bakarrik, dozenaka orri faltsu sortu ere egin zituzten, "BlackMattersUS" edo "Heart of Texas" modukoak, politikako mutur batekoak zein beste muturrekoak ere. Era horretan, benetako protestak bultzatu zituzten… Eta era berean, horien kontrako protestak ere bai!

Facebook-en erantzuna, berandu iristeaz gain, ez da oso ona izan… Eta ez pentsatu Google atzean gelditzen denik. Indiako "antitrust" erakundeak 21 milioi dolarreko izuna jarri berri dio, hori bai, zazpi urte iraun duen prozesu baten ostean. Legea erabilita zeozer egin daitekeela baieztatzen digu horrek, gizarteak "Big Tech" enpresak kontrolatzeko erremintak badituela… Baina zazpi urte asko dira Internetaren munduan, baita "mundu arruntean" ere.

Mozilla Fundazioaren txostenean Internet ekosistemaren osasuna aztertzen da giza ikuspegi batetik

Konturatzen hasi gara, eta ez da gutxi. Erramintak baditugu, garaiko erritmoetara egokitu behar direnak. Teknologia mesedegarriari bai, gure eskuetan eta gure ardurapean baldin badago.

1. Mozilla Foundation https://labur.eus/8KIVe
2. A Facebook executive apologizes to his company and to Robert Mueller, Nicholas Thompson, wired.com, 2018/02/19 https://labur.eus/YDQAb

Kontu kontari, kanta kantari

Katiluaren kontua eta taberna ibiltiaren kantua

t: Juan Luis Goikoetxea/ a: Garazi Albizua

Atzo, apirilaren 5ean entzun dut lehenengoz aurtengo kukua, eta ikusi lehenengo elaiak. Kukua da udaberriko doinua; elaia gure zeruetako kurtsorea; pertsona, berriz, hitza eta berbotsa.

Euskaldunon bazkari nahiz afarietan, dena ez da jan-edana, anekdota, pasadizo edo istorio kontaketa ere ospakizuneko parte da.

Euskaldun kulturadun batzuek anekdota adierazteko gurago dute pasadizo hitza erabiltzea, edo istorio. Nik neuk argitaratu ditudan liburuetarako "Euskaldunaren Anekdotak" aukeratu nuen. Badakit Txillardegik maiteago zuena pasadizo berba, anekdota baino, kritika egin zidaneta. Istorio, ordea, sarri topatzen da euskal letretan, ezen ingelesa irakasten denetik gora, ezaguna baita *story-history* bikote anglosaxoia. Anekdota terminoaren aldeko argumentua da: guraso grekoak dauzkan euskal berba kultua dela, izena bezain izana prestigiozkoak dituena.

Bestalde, guk sarritan ezkutatu edo aldatu egiten ditugu anekdotetako subjektuen izenak, ahaideak mindu ez daitezan.

Katilu Galdakaoko dinamitan da guarda pistoladuna. Gorputzez sano morrosko sendoa duzu, baina bekokia zabalera gutxikoa. Behin, Arratiako eskualdean abenturak eta desbenturak bizi ostean, Cadizera joan zaizu dinamita-kamioiko jagole. Bertan lana amaitu duenean, tabernara jo du. Karta jokoan dihardu talde batek. Katiluk, joko-mahaiko jokalariaren atzetxoan zutik, ekin eta ekin: "Eso no, hombre, así no!". Orduan, mahaiko jokalari nagusiak, haserre bizian zutunduz, plaka erakusten dio: Teniente de la Guardia Civil. Eta Katiluk, pistola gerritik atera eta: "Katilu de Dima, manos arriba". Katiluak, gero, hiru egun kalabozoan.

AIKOR! 180 | 2018ko apirila
www.aikor.eus

Etxeko sukaldaritza

Odolostea eta mizpirak, hostorean

a: elle.com

Osagaiak (lau lagunentzat):
- Kipula bat
- Hiru odoloste
- Bost mizpira
- 50 ml oliba-orioa
- Zortzi hostopil (bolobanak)
- Gatza
- Piper-baltza

Prestateko erea:
Labea aurretik berotuko dogu, 200 gradutan. Kipula txikituko dogu eta odolosteari azala kenduko deutsagu. Betegarria izpituko dogu. Mizpirak zuritu eta hazurra kenduko deutsegu. Txikituko doguz. Zartagin baten orioa ipiniko dogu eta kipula bertan sueztituko dogu. Odolostea gehituko dogu, gatzaz eta piper-baltzaz onduko dogu eta nizpirakaz nahastuko dogu. Surtatik kendu, eta gatza eta piper-beltza botako deutsaguz. Betegarria gordeko dogu. Akabuan, hostopilak betegarriaz beteko doguz eta labara sartuko doguz. Bertan 10 minutu inguru eukiko doguz.

Berdela, muskuilu-saltsan

t: Maite Lekerika / a: hogarmania.com

Osagaiak (lau lagunentzat) :

- 4 berdel-solomo
- Kilo bat muskuilu (garbituta)
- 4 berakatz-atal
- Koilarakada bat urun
- Perrexila
- Orioa
- Gatza

Prestateko erea:
Muskuiluak egosiko doguz. Saldea gordeko dogu. Berakatzak txikituko doguz eta su eztitan frijiduko doguz, gorritu barik. Uruna bota eta eragingo dogu. Saldea eta perrexila gehituko doguz, eta behar badau, gatza be bai. Muskuiluak oskoletatik atara eta saltsan sartuko doguz. Akabuan, berdel-solomoak sartuko doguz eta bost minutu inguru eukiko doguz egosten, su eztitan.

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdinatasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

Tretatxu , lapurren gobernadorea
Hector Ortega Lamera
(Txertoa)

Ahotsak eta itzalak
Maixa Zugasti
(Erein)

LITERATURA: GAZTEAK

Kemena
Garazi Albizua
(denonartean)

Non dago txirlo?
Miriam Peña
(Txalaparta)

Sudokua

	8			6			4	2
		3		2			6	
					7	1	8	9
4			7					
	6						2	
	1		6	5	9		7	
6		9				7		3
2	3	1				4		
							5	

1	8	7	9	6	5	3	4	2
9	4	3	8	2	1	5	6	7
5	2	6	4	3	7	1	8	9
4	9	5	7	8	2	6	3	1
7	6	8	3	1	4	9	2	5
3	1	2	6	5	9	8	7	4
6	5	9	2	4	8	7	1	3
2	3	1	5	7	6	4	9	8
8	7	4	1	9	3	2	5	6

Azokak

Zamudio

> Nekazamudio. Maiatzaren 5ean, 11:00etan, Kultura Etxean.

> Minbizia duten lagunen aldeko merkatu solidarioa. Maiatzaren 19an, Lagunandre elkarteak antolatua.

Erakusketak

Sondika

> Argazkilaritza ikastaroko ikasleen argazkiak. Maiatzaren 11ra arte, Erakusketa Aretoan.

> Margogintza ikastaroko umeen lanak.

Derio

> Udal tailerrak. Maiatzaren 9tik 25era, Kultur Birikan.

Ikastaroak

Derio

> Mintegi informatzailea: elikadura energetikoa. Maiatzaren 8an, 17:00etan, Kultur Birikan.

Zamudio

> Umeentzako tailer zientifikoa. Apirilaren 12an, 11:30ean, liburutegian.

> Zen meditazioa. Apirilaren 17an, 19:00etan, eskolan.

Irteerak

Txorierri

> Herri Urrats. Maiatzaren 13an, Senperen. Ibilaldia. Maiatzaren 27an, Santurtzin.

Sondika

> Bizkargi. Maiatzaren 6an, Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua. Izena ematea: maiatzaren 3ra arte, liburutegian.

Derio

> XXII. Herri martxa. Maiatzaren 20an, 08:00etan (helduak) eta 09:00etan (umeak), Herriko plazan.

> Multiabentura Huescan. Maiatzaren 25etik 27ra. Izena ematea: maiatzaren 6a baino lehen, kiroldegian.

Zamudio

> Bizkargi. Maiatzaren 6an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

> Bilboko Arte Ederretako museoa. Maiatzaren 26an, Adintsuen taldeak antolatua.

> Lagunandre elkartearen asteburuko irteera. Maiatzaren 26tik 27ra.

> Aralar. Maiatzaren 27an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

> Gorliz-Butroe. Maiatzaren 20an, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.

> Pasaia. Maiatzaren 27an, 09:00etan, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

kirola

Sondika

> Txirrindularitza eskolen proba. Maiatzaren 19an, 10:00etan, Lehendakari Agirre etorbidean. Punta Galea txirrindulari elkarteak antolatua.

Larrabetzu

> Bizkargira igoera, herri lasterketa. Maiatzaren 5ean.

> Garmitxa elkartearen aldeko asteburu solidarioa. Futbol 7 Txapelketa, kimu mailan. Maiatzaren 25ean eta 26ean;

> Beteranoen arteko futbol triangularra: Athletic, Bizkaiko Selekzioa eta Uritarra. Maiatzaren 27an, goiz-eguerdian.

Lehiaketak

Sondika

> "Sondika Pintxotan" II. Lehiaketaren sariak ematea: maiatzaren 9an, 19:30ean.

Zamudio

> X. Balkoi Apainduen Lehiaketarako loreak banatzea. Maiatzaren 12an, 10:00etatik 14:00etara, Bidekoetxe parkean.

Musika

Sondika

> Kaleko musika jaialdia. Maiatzaren 25ean eta 26an, 20:00etatik aurrera.

> Udaberriko kontzertua. Maiatzaren 26an, 19:45ean, San Joan Bautista elizan. Abesbatzak: Otxarkoaga (Bilbo), Ekidazu (Lezama) eta Txuma Olagüe (Sondika)

Lezama

> Udaberriko kontzertua. Maiatzaren 12an, Andra Mari elizan. Ekidazu abesbatzaren eskutik.

Larrabetzu

> Maiatza musikala. Maiatzaren 10ean, 19:30ean, Anguleri Kultur Etxean. Maiatzaren 25ean, 19:30ean, Andra Mari elizan.

> Domekak Hori Baien: Nahia Zubeldia. Maiatzaren 20an, 18:30ean.

Ospakizunak

Zamudio

> San Isidro. Maiatzaren 15ean, Lurlangileen elkartean. Bazkaria, trikitilariak…

Larrabetzu

> Bizkargi eguna. Maiatzaren 6an.

> Baserritarren eguna. Maiatzaren 15ean.

> Koadrila eguna. Maiatzaren 19an.

UDABERRI GOZOA

Maiatzean zehar 2.500 karamelu poltsa banatuko ditugu Derioko denda eta establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean.

Deriocom

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Derio

M6 MAIATZA

LEZAMA
ZAMUDIO

HERRI GALDEKETA

ZUK ERABAKI

EMAN ESKUA ETORKIZUNARI

gure esku dago

MAIATZAK 6
09:00 - 20:00
botoa emateko
Lezama: Herriko Plaza
Zamudio: Leizaola lehendakaria Plaza 7
(Loteria ondoan)

Izartu
LEZAMA - ZAMUDIO